



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

AUZOZ AUZO

Udala eta Auzo Elkarteen
arteko bilerak



Herri
Partaidetza
Saila
Donostiako Udala

TXOMIN BILERAREN LABURPENA

Eguna : 2015-12-09
Ordutegia : 20:00 – 21:30
Tokia : Lanberri Auzo Elkarteko egoitzan



DEITUTAKOAK

Lanberri Auzo Elkartea

**Gune Publikoak, Hirigintza eta Herri
Partaidetza.
Udal ordezkari politiko eta teknikoak**

BERTARATUAK

Lanberri Auzo Elkartea:

Lehendakaria eta 3 bokal

Udal Partaideak

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Enrique Ramos, Zinegotzia
Alfonso Gurpegi, Zinegotzia
Juan Ortiz de Zarate, Zuzendaria
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria
Amaia Agirreolea, Teknikaria

HELBURUA:

Txomin inguruan hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

- 1.**Hirigintza-proiektua**
- 2.**Espaloiak**
- 3.**GI-131 bulebar bihurtzea**
- 4.**Kirol pista**
- 5.**Haurrentzako parkea**
- 6.**Edukiontzien kokalekua**
- 7.**Inausketak**
- 8.**La Casera aparkaleku gisa**
- 9.**Argiztapena Artelekutik**
- 10.**Uba-Ametzagaña sarbideak**
- 11.**Espartxoko zubiak**
- 12.**Arévalo eraikinak**
- 13.**Arantzazu eraikin multzoko transformadoreen terraza**
- 14.**Araztailea estaltzea**
- 15.**Hipikako igerilekua**
- 16.**Birziklatze edukiontzietara heltzea**
- 17.**Pistetako sarreran ez aparkatzeko neurriak**
- 18.**Bernategi ingurua egokitzea**
- 19.**Renfeko igarobidea**

1. HIRIGINTZA PROIEKTUA

Hirigintzako zinegotziak jakinarazi du urbanizatzeko prozesuan aurrera egitea oztopatzen zuten kontuetan aurrera egin dela eta litekeena dela, bere ustez, lanak martxo hasieran hastea.

Lanen hasiera hain gertu egoteak nabarmen baldintzatzen du bileran planteatutako gainerako gaietan har daitekeen beste edozein neurri.

2. ESPALOIAK

Antzieta pasealekuaren hasiera Loiolatik

Lanberri auzo elkartea: Loiolatik Txomineko semafororaino datorren espaloia, batez ere, ez da ondo geratu: kota eta zabalera desberdinak eta bidegorririk ez. Planteatzen dugu, hipikako bihurguneko espaloia zatian besterik ez bada ere, hor ez baitago bidegorria sartzeko ezer egiterik, espaloia margotzea erabilera partekatuko eremua izan dadin.

Mugikortasunari eskaeraren berri emango zaio.

Kristobaldegi bidea

Lanberri auzo elkartea: espaloirik ez dagoenez, eskatzen dugu, besterik ez bada ere, eremuak eta abiadurak bereizteko aurreikusitako margotze proiektua gauzatzea.

Mugikortasunari eskaeraren berri emango zaio.

3. GI-131 BULEBAR BIHURTZEA. ANTZIETA PASEALEKUA

Lanberri auzo elkartea: Errepidea asfaltatu da eta bide markak zuzendu dira tren geralekutik Martuteneko biribilgunerainoko tartean.

Baina, mugikortasuneko proiektuan, hasiera batean aurreikusten zen radar mugikorra, ez da jarri eta ez dakigu zergatik.

Kuartelen pareko biribilguneari dagokionez, Loiola zeharbidean egitekoa den hobekuntza proiektuaren baldintzapean geratzen da.

Kuarteletako biribilguneari dagokionez, jakinarazi da behin betiko biribilgune proiektua lizitazio prozesuan dela jada.

Mugikortasunari jakinaraziko zaio jendea ez dagoela pozik trafikoa baretzeko neurriekin.

4. KIROL PISTA

Lanberri auzo elkartea:

- gaur egun, pistetako sarbidea nahasketa bat da (asfalto degradatua eta hartxintxarra, inausten ez den zuhaitz batekin), bi eserleku, edozein moduan jarriak, eta hormigoizko baranda zati bat, inongo funtziorik ez duena. Pistarako sarbide hori txukundu daiteke espaloiko baldosak jarriaz edo sarrera txukunago eta antolatua bat eginez.
- Eskatzen dugu iturri bat jartzea (kirol gune bakarra da eta ez dago non freskatu)
- Horrez gain, itxitura konpondu beharra dago hainbat tokitan, juntura batzuk hautsi direlako edo sarea askatuta dagoelako. 2011ko apirilean Kirol Patronatuak agindu zigun zoladurako markak margotuko zituztela eta sareak jarriko zituztela tenisean aritzerik izateko.
- Luminariak aginte baten bidez piztea erregulatzen duen kutxa elektrikoa hondatu egin zen 2011ko uholdeen ondorioz eta oraindik ez dute aldatu. Aginte bat eskatu dute.
- berrikuspenak eta konponketak hiru hilean behin egiteko Kiroletatik ezarritako maiztasuna ez dator bat errealtatearekin.
- Pistetan ez da garbitze lanik egiten.
- Disuasio neurriak eskatzen ditugu autoak ez aparkatzeko pistetarako sarreran (katea, piboteak???)

Zerbitzu arduradunei jakinaraziko zaie.

5. HAURRENTZAKO PARKEA

Lanberri auzo elkartea: Loiolatik gertuen dagoen parkearen aldea, eta eraispenaren ondoren, gutxi argiztatuta geratu da; kale argia jartzea eskatu dute.

Parkera sartzeko piboteetako bat gaizki jarrita dagoela irizten diote, haur aulkien eta gurpil aulkien igarotzea oztopatzen baitu.

Delako pibotea inguruan den tabernaren jabeak eta ondoko atariko bizilagunek eskatu dute, bizikletariak abiadura handian igarotzen direlako hortik. Mugikortasunari kontsulta egingo zaio hartutako neurriaren egokitasunaz.

Haurrentzako parkearen argiztapenari dagokionez, gaiaz arduratzen den zerbitzuari pasako zaio eskaera, hobetzeko aukerak aztertzeke.

6. EDUKIONTZIEN KOKALEKUA

Lanberri auzo elkartea: Uste dugu hondakin edukiontzi batzuk ez daudela toki egokian kokatuta. Zehazki, Kristobaldegi bidearen hasieran dauden birziklatze edukiontziak galtzadan bertan daude eta hondakinak han utzi nahi dituztenek errepidetik bertatik utzi behar dituztenez, arrisku egoerak sortzen dira. Toki egokiago bat aurkitu behar litzateke zaborra espaloitik botatzerik izateko, eta bilketa zerbitzuko kamioiek irisgarritasun hobea izateko ere bai.

Hasiera batean bazirudien horren irtenbidea duela gutxi gauzatutako proiektuan jasota zegoela, baina ez da horrela izan.

Gaiaren irtenbidea aztertu da eta lanen balioespen ekonomikoa egitea falta da. Toki horretan dagoen parterrearen eta heskaiaren zati bat kentzea litzateke.

7. INAUSKETAK

Auzoan inausketak egin behar direla eta, gehienekexaren aurrean, Bide Publikoen Zerbitzuak eskatu du zehazteko zein diren lehentasunezkoak. Hauek detektatu dira:

- Antzietza 31n, bi zuhaitz
- Kirol pisten ondoko zuhaitzak
- Rocaren eraikinaren albo batean diren sasiak kentzea

8. LA CASERA APARKALEKU GISA JARTZEA

Eskaera horren aurrean, arduradunek jakinarazi dute lursail horrek ez dituela segurtasun baldintzak betetzen erabilera horretarako eta obren hasiera dela eta, laster hartuko dutela lursaila behar diren azpiegiturak jartzeko (makinak, kasetak eta abar).

9. ARGIZTAPENA ARTELEKUTIK

Bide Publikoen Zerbitzuak aukerak aztertuko ditu

10. UBA-AMETZAGAÑA PARKERAKO SARBIDEAK HOBETZEA ETA ANTOLATZEA

Bileran jakinarazi da jada aurreikusi dela egoera aztertzea, Loiolako elkartearen aurretiazko eskaeraren aurrean.

Proposatu dute seinaleztapen bertikala bide zorua margotuz osatzea edo kuarteletako lursailaren mugaren inguruan den oinezko bidexka bat hobetzea.

11. PREMIA ESPARTXOKO ZUBIA EGITEA

Hirigintzako zinegotziak jakinarazi du URAREN ardura dela, baina, nolanahi ere, argitu du Udalak baduela gordeta dirua 2016rako eta 2017rako berari dagokionerako. Proiektua prest dago.

12. ARÉVALO ERAIKINAK

Hirigintzako zinegotziak jakinarazi du Udala bitartekaritza egiten ari dela arduradunen artean, eta hori dela egin dezakeen guztia gai honetan.

13. ARANTZAZU ERAIKIN MULTZOKO TRANSFORMADOREEN TERRAZA

Ibredrolarekin negoziatzen ari da gaia; nolanahi ere, obren lehen lerroan dagoenez, proiektuan aurreikusten da lurpean joatea eta urek hartuko ez duten eremu batean.

14. ARAZTAILEA ESTALTZEA

Elkarteak jakinarazi du bilera egin dutela jada M^a Je Zelaia arduradunarekin. Txominen ere neurketak egitea eskatu dute.

15. HIPIKAKO IGERILEKUA

Instalazioak egoera negargarrian daudela eta, aukera baztertu egin da, elkarreak dioenez.

16. BERNATEGI INGURUA EGOKITZEA

Lanberri auzo elkarrea: Ibai ondotik doan bide osoan zehar (Bernategi ingurua) ez dago toki bakar bat ere adinekoak (asko dira inguru hartan) atsedentxo hartzera esertzeko. Haien esanetan, leku oso baketsua da, naturan, eta toki oso bisitatua bihurtu dena, txukundu zenetik.

Bide Publikoen Zerbitzuak ingurua aztertu du eta bi zona proposatu dira eserlekuak jartzeko: Martutene pasealekua 11 eta 15eko bi arraun klubaren artean eta Kristobaldegi bidea 42ko belardiaren ondoan.

17. RENFEKO IGAROBIDEA

Igarobidea egoera oso txarrean dago eta kritikotzat kalifikatu daitezkeen puntuetako bat da argiztapen, ikuspen eta osasungarritasun ezagatik.

Txukuntzeko premiaz jabetzeaz gain, konpromisoa hartu da Azpiegituren sailean aztertzeke oso-osorik hobetzeko proiektu bati ekiteko aukera.



**Eskerrik
asko!!**